




16-19 urte bitarteko  
ikasleentzako jarduerak



# 3. URRATSA: PERSPEKTIBAK ALDATUZ



Co-funded by  
the European Union





## 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



### **Xedea**

Perspektibak aldaketa sustatzea, topaketa esanguratsuen bidez, ikasleak animatuz beraien emozioetatik aritzera eta beren bizipenei buruz hausnartzera.



### **Helburuak**

Ikasleek adimen emozionala garatuko dute ulertzeko migratu behar izan duten pertsonen egoerak, bizipenak eta nahiak. Ikasleek perspektiba aldatuko dute eta gaiari buruzko ezagutza esanguratsu lortuko dute.



### **Gako-hitzak eta edukia**

Perspektibak aldatuz, elkar topo egiten, enpatia.



### **Metodologia eta Iraupena**

Konpromisoa behartutako migrazioa bizi izan duten pertsonekin.

Enpatia eta ikuspegi desberdinak ulertzeko gaitasuna sustatzen dituen elkarrizketa erraztua.

45-50 minutu



Co-funded by  
the European Union

41





### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



## Elkar topo egiten, partekatzen eta ikasten dugu

Urrats honetan, oso gomendagarria da zure Together for Change erakunde kolaboratzaile nazionalarekin elkarlanean aritzea klasearen barruan topaketa bat antolatzeko eta migrazioa bizi izan duen pertsona bat gonbidatzeko beren historia pertsonala partekatzera, migrazioarekin, parte-hartzearekin eta defentsarekin izandako esperientziak barne. JRSk kontaktuak ezarri ditu ikasgelan ikasleekin hitz egiteko prestatuta dauden pertsonekin. Topaketa koordinatuko dute eta pertsonarekiko konexioa erraztuko dute



Co-funded by  
the European Union

42





## 3. urratsa: Perspektibak aldatuz

### Ikasleen prestakuntza

GETTING  
READY

Zure ikasleak gonbidatuari harrera egiteko prestakuntza aurreko urratsaren amaieran egin behar da (ikus 2. urratsetik 3. urratserako trantsizioa). Azaldu gonbidatuak oso esperientzia pertsonalak partekatuko dituela, horietako batzuk zailak edo mingarriak izan daitezkeenak.

Animatu ikasleak galderak egitera, baina gogorazi gonbidatuak eskubidea duela ez erantzuteko. Ikasleek beren galderak idatziz aurkeztea gomendatzen da. Horrek aukera ematen die gonbidatuari eta Together4Change erakunde laguntzaileari galderak aldeztu aurretik berrikusteko eta zeintzun erantzun erabakitzeko. Galderak parafraseatzea ere beharrezkoa izan daiteke sentiberatasuna bermatzeko.

ATTENTION!  
PLEASE!

Kontuan izan beren istorioa partekatzen duen pertsona egoera ahulean dagoela. Beraz, funtsezkoa da beren intimitatea zaintzeko eta errespetatzeko giroa sustatzea. Elkarrizketa horretarako espazio eroso eta errespetuzkoa sortzearen garrantzia azpimarratu. Ikasleekin beren esperientzia, sentimendu, itxaropen eta desira pertsonalei buruz publiko ezezagun baten aurrean hitz egin beharko balute, nola sentituko lirateken hausnartu.



Co-funded by  
the European Union

43





### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



Kontuan izan Together4Change erakunde laguntzailearekin eraikitzen ari zaren harremana baliabide baliotsua izan daitekeela zure erronka aurrera ateratzeko edo baita programaren beste fase batzuetarako ere.

"Gonbidatua": Zure klasera beren istorioak partekatzera etortzen diren gonbidatuek inspirazioa eta ideiak eman ditzakete aurkezpenaren bitartean, 6. urratsan ekintzarako. Anima iezaiezu ideia horiek zure klasearekin eztabaidatzera aurkezpena egiten dutenean.



Co-funded by  
the European Union

44





### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz

## Zure gonbidatuari ongietorria emateko prestakuntza

GETTING  
READY

Gonbidatuak eroso sentitu behar du bere esperientziak partekatuz, une desafiatsuak eta mingarriak barne, baita galera, atsekabe eta itxaropenak ere, karga emozional gehigarriak hartu gabe. Era berean, gonbidatuak jakin behar du ikasleek ez dutela beti asmatzen galderak eta iruzkinak sentiberatasunez esaten.

Idealki pertsonak denbora tarte nahikoa l eramango du zure herrialdean bizitzen, eta ondorioz esperientzia baikorrak eta ezkorak eztabaidatzeko gai izango da, onarpen eta bazterkeria esperientziak barne hartuz. Iritsi berri den errefuxiatu batek ezagutza baliotsuak eskain ditzakeen bitartean, litekeena da zure herrialdean bizitzea zer den oraindik ondo ez ezagutzea. Egokiena litzateke gonbidatuak gai izatea ikasleekin zuen hizkuntzan komunikatzeko gai izatea. Hala ez bada, itzulpena beharrezkoa izango da, baina agian ez ditu bere historiaren ñabardurarik finenak atzemango eta denbora gehiago beharko luke.



Co-funded by  
the European Union

45





### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



Ikasleek etorkizunari begira dituzten nahi eta ametsen buruzko eztabaidetan parte hartu dute, bai eta . migrazioaren konplexutasunei eta giza eskubideen urraketa buruzko eztabaidetan ere. Erronkak gorabehera, garrantzitsua da onartzea ametsak gauza daitezkeela eta bidegabekeriei aurre egin behar zaiela. Ikasleek gai horiei buruzko galderak prestatu dituzte eta zure Together for Change erakunde laguntzaileak, beraiek zein beste pertsona batzuen adibide baliotsuak eskaini diezazkieke beren ametsen atzetik ibili diren, bidegabekeriei aurre egin dieten eta gaur egun sentibilizazioan parte hartzen duten gizabanakoei buruz. Topaketa hau une erabakigarria izan daiteke, ikasleei pentsarazteko nola lan egin dezaketen elkarrekin amets horiek errealitate bihurtzeko eta ezagutu dituzten bidegabekeriei aurre egiteko.

### Historia gidatzeko aukera bat da honako gaiak kontuan izatea:

- Konfiantza- eta mesfidantza-harremanak
- Tratu onen eta tratu txarren esperientziak
- Ezbeharrak gorabehera, irauten eta jarraitzen zenuen egoerak.
- Zure ametsak, aldaketa-nahiak eta etorkizunerako itzaropenak.

- Zure emozioak eta sentimenduak
- Intzidentzia kasuetan bizi izan dituzun esperientziak
- Segurtasun eta segurtasun ezaren sentimenduak
- Pertsona gisa dituzun eskubideak errespetatzea edo ez errespetatzea

Jakina, gonbidatuak askatasun osoa du hitz egiteko bakarrik eroso sentitzen denaz.



Co-funded by  
the European Union

46






### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



Together4Change proiektuaren kide izanda parte hartuko duten pertsonak prestakuntza jasoko dute. Hala ere, hemen ematen den informazioa baliagarria da prestaketaren garrantzia ulertzeko eta ziurtatzeko topaketak giro segurua eta solidarioa sortzen duela guztiontzat, batez ere gonbidatuarentzat.

Lekukotasuna partekatuko duen pertsonak eta Together for Change erakunde laguntzaileek aldez aurretik informatu behar dute eztabaidatu beharreko gaiei buruz eta elkarrizketa nola garatuko den. Funtsezkoa da xehetasunak ematea, hala nola klasearen osaketa, ikasleen adin taldea, parte-hartzaile kopurua, ordutegia, espazioaren antolakuntza eta mikrofonorik beharko den. Gonbidatuari eta parte-hartzaile guztiei segurtasun-pertzepzioa bermatzeko, oso gomendagarria da elkarrizketa "anfitrioia" ezagutzen duen norbaitek lagundu eta moderatzea, adibidez, zure T4Change erakundeak edo elkarteko beste kide batek



Co-funded by  
the European Union

47







## 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



### Sarrera eta elkarrizketa



Gonbidatua eta Together4Change erakundeko ordezkaria zure klasera iristen direnean, agurtu labur-labur eta utz iezaiezu aurkez daitezela. Eskatu gonbidatuari/ei beren istorioa ikasleekin partekatzeko, eta eskatu ikasleei entzuteko etenik gabe. Gonbidatuaren aurkezpenaren ondoren, ikasleek beren galderak egin eta hitz egin dezakete. Gonbidatuak galdera bat egiten badu edo zerbait bereziki deigarria partekatzen badu, animatu ikasleak horretaz pentsatzera eta komentatzera.



### Hausnarketa



Topaketa amaitzean, gonbidatzen ditugu ikasleak bereziki hunkitu diena laburki partekatzera. Beren bizitzan eta besteekiko harremanetan zer espero duten hausnartzeko eskatu. Hau ere aukera ona izan daiteke 6. urratserako ekintzak eztabaidatzeko erakunde laguntzailearekin. Bai ikasleek eta bai Gonbidatuak/Erakunde laguntzaileak ideiak truka ditzakete, eta baliogarria litzateke erakunde laguntzailearekin edo errefuxio/migrazio gaietan aritzen den beste erakunderen batekin lankidetzan aritzeko bideak aztertzea.

Azkenik, eman azken hitza gonbidatuari: bada elkarrizketan aipatu ez duten zerbait?



Co-funded by  
the European Union

48





### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz

#### Topaketa posible ez bada...

1

1. Baliabide gehigarriak aztertzea: migrazio-istorio pertsonalak eskaintzen dituzten hainbat material erabil daitezke. Hona hemen lagungarri izan daitezkeen baliabide batzuk:

-1000 Ametsetako proiektua: Istorio migratzaileen bilduma

<https://1000dreamsproject.com/>

- Topaketa Emmanuel Jal-ekin: Haur soldadu ohi baten testigantza indartsua.

<https://www.youtube.com/watch?v=hpvIXh15IZO>

- 1.go urratsaren bideoak: Berrikusi lehen urratsean erabilitako bideoak testuinguru eta eztabaidagune gehiagotarako

2

2. Ikasleen hausnarketa sustatzea: Hainbat galdera daude, ikasleei partekatutakoaz hausnartzen lagun diezaieketenak. Guztiak erabili ditzakezu edo batzuk aukeratu (Ikasleek galderak aurki ditzakete → 3. Urratsa - Ikasleen lan-orria)

- Bere istorioa kontatzen ari den bitartean, zer emozio eta sentimendu adierazten ari da pertsona?
- Zer esperientzi eta itxaropenak helarazten ari dira?
- Zer da gehien hunkitu edo mugitu nauena?
- Nola sentitzen naiz ni pertsona honen historia entzuten edo irakurtzen dudanean?
- Zein da nere desioa berarentzat?



Co-funded by  
the European Union

49






## 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



Zure erakunde laguntzaileak "gonbidatu" bat aukeratu eta ekarriko du, edo berarekin egongo da, baina saioaren aurretik, lankidetzaz eta prestakuntza zehatza funtsezkoak dira.



### Hausnarketa ariketa praktikoa

**Azaldu urrats honetako gogoeta-lana (Hausnarketa ariketa praktikoa, Ikasleek galderak aurki ditzakete → 3. Urratsa - Ikasleen lan-orria):**



Bilatu ezazu itzaropena irudikatzen duen irudi edo argazki bat.



Idatz itzazu zure bi desio beren herrialdeak uztera behartuak izan diren pertsonentzat.



Pentsa ezazu zein izan liteke zure ekarpena, bai txikia edo handia, desio horiek egia bihur daitezzen.



Co-funded by  
the European Union

49





### 3. urratsa: Perspektibak aldatuz



## Laburpena eta transizioa

Eskatu ikasleei sentipen bat eta gogoeta bat partekatzeko, esaldi gutxitan, urrats honetan izan duten esperientziari buruz. Hainbat ikaslek beren pentsamenduak partekatu ondoren, zure hitzekin funtsezko puntuak laburbil ditzakezu (aipatu ikasgaien helburuak).



**Ondoren, azaldu nola egingo den hurrengo urratsa:**

“ Hurrengo urratsean pertsona errefuxiatu eta migratzaileak justiziaz tratatzeko eta elkarrekin ahalik eta ondoen bizitzeko errespetatu beharreko iruzpideei buruz aituko gara ”



Co-funded by  
the European Union

51

